



JURRETAKO
XIX. LITERATUR
LEHIAKETA

2022

Lurretako XIX. Literatur Lehiaketaren oinarri laburtuak

Zertarako sortu zen lehiaketa?

Lurretako Udalak XIX. Literatur Lehiaketa deitu du arte- eta literatura-lanen bitartez sormena garatu nahi duten pertsonak babesteko.



Nork har dezake parte?

1. 8 urte baino gehiago dituzten haur eta gazte guztiek, baldin eta lurretan errolatuta badaude edo udalerrri honetan ikasten badute.
2. Parte hartu nahi duten 18 urtetik gorako pertsona guztiek.

Lehiaketa, adinen arabera, hiru kategoriatan banatuko da:

- **Haurrak:** 8 eta 12 urte artean.
Lehen Hezkuntzako ikasleak, 3. mailatik 6. mailara bitartekoak.
- **Gazteak:** 13 eta 18 urte bitarteko gazteak.
DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak.
- **Helduak:** 18 urtetik gora.

Zer motatako lanak aurkez ditzakete?

Lanei dagokienez, lau kategoria deituko dira:

- Ipuina
- Olerkiak
- Bertsoak
- Komikia

Gaia: Parte-hartzaileek aukeratu ahal izango dute gaia.

Hizkuntza: Euskaraz, haur eta gazteen kategorietarako.

Euskaraz eta gaztelaniaz, helduen kategoriarako.

Lan originalak: Aurkeztuko diren lanak ezin izan dira aldeztatik argitaratuta egon, ez eta beste lehiaketa batzuetan saridun suertatu ere.

Lanen kopurua: Parte-hartzaileek lan bana aurkeztu dezakete kategoria bakoitzeko. Lanak banaka aurkeztu beharko dituzte, komikien kategorian izan ezik, banakako zein taldekako lanak aurkeztu ahal izango dira eta.

Lanen luzera eta letra-tipoa:

Hauxe da lanek eduki dezaketen gehieneko luzera, kategoria eta adinaren arabera:

Adina	Ipuina	Olerkiak	Bertsoak	Komikia
8 eta 10 urte bitartean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak	3 orrialde	4 lerro	2 estrofa	1 orrialde
11 eta 12 urte bitartean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	4 orrialde	8 lerro	3 estrofa	1 orrialde
13 eta 14 urte bitartean DBHko 1. eta 2. mailak	5 orrialde	16 lerro	4 estrofa	2 orrialde
15 eta 16 urte bitartean DBHko 3. eta 4. mailak	6 orrialde	24 lerro	5 estrofa	2 orrialde
17 eta 18 urte bitartean Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	7 orrialde	32 lerro	6 estrofa	3 orrialde
18 urte baino gehiagokoak	8 orrialde	40 lerro	6 eta 8 estrofa artean	4 orrialde

Lanak ordenagailuz idatzita aurkeztu beharko dira, alde bakarrean, DIN-A4 folioetan, Times New Roman letrarekin eta 12 tamainarekin.

Lerroen arteko espazioa 1,5ekoa izan behar da, 2,5 zentimetroko aldeekin.

Zenbakiak jarriko dira orrialde guztietan.

Zer dokumentazio aurkeztu behar da?

Esteka honetan ageri den eredu ofiziala bete eta sinatu behar da:

http://www.iurreta.eus/es-ES/Cultura/noticiasdecultura/Documents/20200226_B-03_lurretako_Literatur_Lehiaketan_parte-hartzea_ed.pdf

Gainera, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) eta Iurretako Herri Bibliotekan lor daiteke eredu.

Eskaera-ereduarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren fotokopia bat.
- Literatura-lana, baina egilearen izen eta sinadurarik gabe.

Nola aurkeztu behar da eskaera?



Non? Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), aurrez aurre aurkeztu ahal da.

Helbidea: Bidebarrieta kaleko 5. zenbakian, 48215. Iurreta. Bizkaia.

Bestalde, Internet bidez bidali daiteke udal honen egoitza elektronikoaren

bitartez. Kasu horretan, lanak PDF formatuan aurkeztuko dira.

ww.iurreta.eus helbidean (Tramiteak on line/Hiritarrekiko harremak/Diru-
alguntzen, beken, sarien eta laguntzen eskaera atalean)

Noiz? Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta egutegiko hurrengo hamar egun naturaletan. 2022. urteko **Martxoak 5 - 14 bitartean** (biak barne).

Sariak

Hauexek izango dira sariak: liburu-sortak eta lehiaketa honetako laguntzaile diren liburu-dendetan gastatzeko diru-bonuak.

Kategorietan honako sari hauek banatuko dira parte-hartzaileen adinaren arabera:

Ipuina

Adina	Saria
8 eta 10 urte bitartean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak	1. saria: 50 euroan baloratutako liburu-sorta. 2. saria: 40 euroan baloratutako liburu sorta. 3. saria: 30 euroan baloratutako liburu sorta.
11 eta 12 urte bitartean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	1. saria: 75 euroan baloratutako bonua. 2. saria: 50 euroan baloratutako bonua. 3. saria: 40 euroan baloratutako bonua.
13 eta 14 urte bitartean DBHko 1. eta 2. mailak	1. saria: 100 euroan baloratutako bonua. 2. saria: 60 euroan baloratutako bonua. 3. saria: 50 euroan baloratutako bonua.

15 eta 16 urte bitartean DBHko 3. eta 4. mailak	1. saria: 150 euroan baloratutako bonua. 2. saria: 75 euroan baloratutako bonua. 3. saria: 60 euroan baloratutako bonua.
17 eta 18 urte bitartean Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	1. saria: 165 euroan baloratutako bonua. 2. saria: 85 euroan baloratutako bonua. 3. saria: 75 euroan baloratutako bonua.
18 urte baino gehiagokoak	200 euroan baloratutako bonua.

Olerkiak, bertsoak eta komikia

Adina	Saria
8 eta 10 urte bitartean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak	50 euroan baloratutako liburu-sorta. Talde-lanetarako, komikian, 100 euro.
11 eta 12 urte bitartean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	75 euroan baloratutako bonua. Talde-lanetarako, komikian, 100 euro.
13 eta 14 urte bitartean DBHko 1. eta 2. mailak	100 euroan baloratutako bonua. Talde-lanetarako, komikian, 200 euro.
15 eta 16 urte bitartean DBHko 3. eta 4. mailak	150 euroan baloratutako bonua. Talde-lanetarako, komikian, 200 euro.
17 eta 18 urte bitartean Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	165 euroan baloratutako bonua. Talde-lanetarako, komikian, 300 euro.
18 urte baino gehiagokoak	200 euroan baloratutako bonua.

Zein lan sarituko diren erabakitzeko, epaimahai bat osatuko da.

Epaimahaikideak Iurretako Udaleko eta udalerriko kultura-entitateetako ordezkariak izango dira.

Honako hauek baloratuko dira lanetan: literatura-kalitatea, sormena eta istorioaren zati guztien arteko lotura.

Epaimahaiak, gehienez ere, hiru hilabete izango ditu lanak baloratu, eta irabazleak aukeratzeko. Saritutako lanen zerrenda Iurretako Udalaren webgunean argitaratuko da. www.iurreta.eus

Saridunek sariak banatzeko ekitaldira joan beharko dute Iurretako Udalak adierazten dituen egun eta lekuan.

Saridunek bertan egon ezin badute, ordezkariaren bat bidali beharko dute.

Iurretako Udalak lan bat argitaratuko du kontaketa irabazle guztiakin.

Lehiaketara aurkezten diren pertsona guztiak oinarriak eta epaimahaiaren erabakia onartzen dituzte.



Irakurketa Erraza